



### 3.- ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

#### Sarrera

Gaur egungo gizarteek zenbait erronka handi dituzte. Hona hemen horietako batzuk: herritarrak heztea, etniak, nazionalitateak eta taldeak elkarrekin bakean bizi daitezen; gizarte mota bat garatzea, gure gazteek hura eraikitzen parte hartze aktiboa izan dezaten, beren burua gizartetik babestu edo marjinatu beharrean. Erronka horiei aurre egiteko, zalantzarik gabe, gizarteak eta hezkuntzak ahalegin garbia egin behar dute, helburu argien bitartez, bai eta ebaluazio zehatza ere, lorpenak egiaztatzeko. XXI. menderako oinarritzko hezkuntzaren kalitate hobea lortzeko, ez da nahikoa "gauza bera egitea, denbora luzeagoan". Nahitaezkoa da beste hezkuntza eredu batean pentsatzea, beste garai batzuetatik jasotako aldaera apaindua bakarrik izan ez dadin.

Elkarrekin bizitzen ikastea, ezagutza transmisioa baino gehiago, gaur egungo hezkuntzaren ikaskuntza garrantzitsuenetakoa da. Alde horretatik, gizarte demokratikoei balio handiko baliabidea dute, gure inguruan gertatzen ari diren zenbait aldaketa sozial azkarrei aurre egiteko: herritarren hezkuntza.

1993. urtearen hasieran, UNESCO erakundeak sustaturiko XXI. Menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak adierazten zuen garrantzitsua zela herrixka den mundu honetan elkarrekin bizitzen ikastea, bai eta beharrezkoa zela elkarbizitza hori Bake Kultura baten barnean ulertzea ere. Jende askoren iritziz, bizitzarako eta elkarbizitzarako oinarritzko sistema bat ezartzea izan behar du gaur egungo erakundeek onartu beharreko konpromiso garrantzizkoenetako bat, herritartasuna erabiltzeari dagokionez. Esate baterako, Geneva 2001eko Konferentzien Nazioarteko Zentroaren berrogeita seigarren bileran honako hau adierazi zuten: "Giza eskubideen eta giza garapenaren alorrean, hezkuntzaren kalitatea honela defini daiteke: elkarrekin bizitzeko gaitasuna, bai elkarrekin bizitzen jakiteko eta hori nahi izateko lorpenei dagokienez, bai lorpen horiei laguntzen dieten baldintzei eta prozesuei dagokienez".

Hala ere, elkarrekin bizitzearen kontzeptua bera aldatu egiten da denbora igaro ahala eta kulturen arabera, bai eta hori lortzeko behar diren ikaskuntzak ere. XXI. mendean ditugun erronkei erantzuteko, zenbait galderari erantzun beharko diegu; esate baterako, zein diren gaur egungo inguruetik ondorioztatzen diren ezaugarri zehatzak, eta zer erantzun eman diezaiokeen gaur egungo hezkuntzak egoera horri.

Banakotasun eta komunitasun balioak itxuraz kontrajarriak direnez, ez dira erraz integratzen gure bizi eta hezkuntza ikusmoldeetan. Hezkuntza-psikologiako literatura egile askoren ustez, gizakiak oso errotuta dituen bi joera bateragarri egin behar dira: batetik, komunitatean bizitzearekin lotuta dagoen segurtasuna bilatzea, eta, bestetik, gizabanakoen askatasuna erabiltzeko beharra. Ekonomia garatu duten gizarte modernoetan, oso erraz ikusten da individualismorako eta interes partikularrerako joera handia dagoela. Hala ere, gizabanakoek aukeratzeko eta komunitate justu eta solidarioan bizitzeko duten beharra bateratu egin behar da ikuspegi horiek dakarten konpromiso etikoarekin.

Dena dela, hezkuntzaren profesionalak gai horri heltzen diogunean, zenbait galdera egiten ditugu: Zein izan daitezke, ahal izanez gero, XXI. mendeko erakundeetan garatu behar diren balioei eta kompetentziei buruzko akordioak? Non

ikasten eta irakasten dira egoera gatazkatsuetan gidatuko gaituzten balioak eta printzipioak? Zer zeregin dute ereduak, eta zer hezkuntza estrategiak laguntzen diete portaera etikoei, herritartasuna erabiltzean? Zer egin dezakegu hezkuntzatik abiatuta, ikasleek herritar eragileak izaten ikas dezaten, gai izan daitezen laguntzeko, erabaki arduratsuak hartzeko eta gatazkak era baketsuan konpontzeko, nahiz eta ingurura begiratu eta gizartean balio horiek ez direla nagusi konturatu?

UNESCOK adierazi du elkarrekin bizitzen ikasteko ez dela nahikoa talde desberdinen arteko kontaktuak antolatzea eta elkarrekin komunikatzea, baizik eta bi orientazio osagarri behar direla. Lehen maila batean, besteak pixkanaka ezagutu behar dira eta, bigarren maila batean, proiektu komunetan etengabe parte hartu behar da. Beraz, orientazio horiek eskola curriculumean sartu behar dira, baita komunikazioaren teknologia berrietan ere.

Kompetentziak zehaztea hezkuntza helburuei erantzuna emateko era bat da, eta, zalantzarik gabe, laguntza handikoa izan daiteke erabiltzen ditugun estrategiak orientatzeko eta ebaluatzeko. "Elkarrekin bizitzen ikasi" izena duen kompetentzia orokorraren barnean, beste kompetentzia batzuk -elkarrekin oso estu lotuak- zehatz daitezke, 1. grafikoan ikus daitezkeen bezala. Kompetentzia horiek hezkuntza esparruetan landu beharko lirarteke, bai curriculum formalean, bai ez-formalean. Beste pertsonen arrazoia eta sentimenduak ulertzeko gauza baldin bagara bakarrik garatuko ditugu gainerako kompetentziak. Baina, enpatia horrek, arrazionala izateaz gain, afektiboa ere izan behar du (emoziozko dimentsioa), elkarrekin bizitzen ikasi ahal izateko.



- **Elkarrekin bizitzen ikasi Txanela Proiektuan**

Elkarrekin bizitzen ikastea ezinbesteko osagaia da Txanela Proiektuko proposamenetan; ezin da Txanela Proiektua ulertu elkarrekin bizitzeko kompetentziak kontutan izan gabe.

Txanela proiektuan edozein edukiren **aprendizaiaren** paradigma eraikitzailearen aldeko hautu metodologikoa egin da eta ondorioz, proposamen guztien ardatz nagusienetakoa, elkarreraginean garatutako aprendizaiaren eraikuntza, da. Elkarreragin horretan hainbat kompetentzia landuko dira etengabe eta gainera, elkarreragin hori behar bezala bideratuko dituzten taldekatze ezberdinetan sortuko diren dinamiken kontzientzia eta erregulazioa osagai nagusi bihurtzen dira.

Paradigma eraikitzailearen beste ardatz nagusietakoa estrategia ezberdinak (kognitiboak, komunikatiboak, ekimenari dagozkionak, emozionalak eta elkarbizitzari dagozkionak) konpartitzean datza. Estrategiak elkarri komunikatuz eta elkarrekin garatuz ikasteaz ari gara, eta alderdi hau ere konstantea da Txanela proiektuan.

Horretaz gain, unitate didaktiko guztien garapenean, etengabe bultzatuko da elkar bizitzari dagozkion kompetentzien (pertsonarteko harremanak, parte hartze demokratikoa, elkarlana eta talde lana, gatazken konponbidea eta aniztasuna) eta eszenatoki ezberdinen (jolasak, ikastola, gela, kalea, familia, auzoa, herria...) inguruko hausnarketa, eztabaida. Aldi berean, elkarlanean eta talde lanean era egokian jarduteko aukera anitz landu eta ebaluatuko dira. Txanelan proiektuak eta talde-lan ezberdinak proposatzerakoan, erabakiak era egokian hartzeko egoerak eta prozedurak aurkezten zaizkio ikasleari baita arazoak estrategikoki eta demokratikoki ebazteko ere. Bestalde, urtez-urte eta unitatez-unitate hainbat Elkartasunezko jolas txertatu dira eta baita gairen sekuentzian barrena, nahiz tutoretzan lantzeko aproposak izan daitezkeen hainbat proposamen ere, zenbaitetan komikietako pertsonaien islatzen duten aniztasuna eta bizipenak baliatuz.

Elkar bizitzak eta elkarrekin bizitzen ikasteak, beraz, Txanela Proiektuko proposamen didaktiko guztiak bustitzen ditu.

## **Elkarrekin bizitzen ikasteko kompetentzia orokorrak**

- 3.1. PERTSONARTEKO HARREMANEI dagozkion kompetentziak.**
- 3.2. GATAZKAK KONPONTZEARI dagozkion kompetentziak**
- 3.3. PARTE HARTZE DEMOKRATIKOARI dagozkion kompetentziak**
- 3.4. ELKARLANARI ETA TALDE LANARI dagozkion kompetentziak**
- 3.5. ANIZTASUNARI dagozkion kompetentziak**

### 3.1. PERTSONARTEKO HARREMANEI dagozkien kompetentzien lanketa Txanelan

Pertsonarteko konpetentzia egokiak elkarreragin positiboa erraztu behar du. Horretarako beharrezkoa da oinarrizko trebetasun konbentzionalak edukitzea, harreman positiboak (enpatia, entzute aktiboa) errazten dituzten komunikazioaren gakoak erabiltzeko gai izatea, besteen mezuak egoki interpretatzen jakitea, eta garbi esaten denari erreparatzeaz gain, emoziozko eta testuinguruko aldagaiei ere erreparatzea, pertsonarteko harremanetan sortzen diren emozioak autoaztertzen jakitea, besteen iritziei, gogoei eta beharrei errespetuzko erantzunak ematea eta laguntzeko jarrerak izatea. Txanela Proiektuko materialetan aukera ugari eskaintzen dira konpetentzia horien garapenerako. Hona hemen adibide batzuk:

- **Oinarrizko konbentzioak**

Eskolako testuinguruan, ikasgelaren barruan nahiz kanpoan, pertsonarteko harremanetan izaten diren gizarte konbentzioak eta arauak erabiltzea.



(Irudia: *Txanela Globalizatua 1*, 7. unitatea, 11. or.)

• **Entzute aktiboa**

Besteek (ikaskideek, irakasleek...) esaten dutenari erreparatzea, komunikazioa eta elkarriketa errazten duten jarrerren bidez (hitzezkoak nahiz hitzik gabekoak).

- Gizakiok ez gara hitzen bidez bakarrik komunikatzen. Betidanik izan ditugu komunikatzeko beste hainbat era: keinuak erabiliz, gorputzaren bidez..., eta mezu ugari bidaltzen ditugu hitzik esan gabe ere: eskua luzatzean, musu emanez, norbait besarkatzean, burua makurtzean...



- Zer uste duzu adierazi nahi dutela argazki hauetako pertsonak?


.....

.....

.....

.....

.....

.....



(Irudia: Txanela Globalizatua2, 6. unitatea, 9. or.)

*jarduerak*

### Hitz-errotak

Asmakizunen eta aurrerapenen onurei eta arriskuei buruzko gogoetarekin jarraituko duzu; oraingoa talde-elkarrizketa izango duzu honretarako bitartekoa.

- 1) Talde-elkarrizketa egiteko jarrai iezaezue, taldekideekin batera, honako urrats hauei:
  - 1) Parte-hartzea prestatu.
    - Pentsa ezazu zer gogoeta, bizipen edo iritzi azalduko dituzun. Nagusiak idatziz jaso ditzakezu.
    - Orain arte egindako gogoetetan oinarritu zaitezke; irakurgaia liburuan aurkituko dituzun beste hainbat ere irakur ditzakezu.
  - 2) Hizketarako gidola zehaztu eta adostu taldean.
    - Adibidez, gaiaren alderdi hauek azter daitezke:
 

*Asmakizun baxien edo sinpleen garrantzia;*  
*Oinarriko asmakizunak edo tresnak;*  
*Aurrerapen teknologikoen arriskuak eta eragozpenak.*
  - 3) Norik bere gogoetak eta iritziak azaldu, besteenak entzun eta, nahi izanez gero, eztabaidatu.
    - Eztabaidan hasiz gero, ez ahaztu hitz-errotak honen helburua: ahalik eta ikuspuntu eta alderdi gehienak kontuan izanik, gaia aztertu nahi da, eta ez inor konbentzitzea edo iritzi aldaraztea.
  - 4) Ondorioak atera.
    - Lauzprobost lagun arduratu daitezke gainerakoen gogoetak, jarraitzeaz, eta azal dutako ideia nagusiak laburbiltzeaz.

ASMAKIZUNEN  
GARRANTZIAZ, IDEA HAUEK  
IZAN DIRA NAGUSI...

GEHIENEN IRITZIZ,  
OINARRIZKO  
ASMAKIZUNAK...

GEHIEN  
ERREPikatU DEN  
ALDERDI NEGATIBO...

12 

(Irudia: Txanela Globalizatua 6, 4. unitatea, 12. or.)

- **Enpatia**

Eskola inguruneko pertsona batek (ikaskide, irakasle...) kezka edo ondoeza adierazten duenean, sentikortasuna eta ulermena erakustea, intereseko jokabide aktibo bidez.



Irakurri berri duzun ipuinean, On Josepek zioenez, denok asmatzaileak, "inventadoreak" omen gara. Saiatuko al zara hemen behean agertzen diren egoera ezberdinei aurre egiteko zerbait asmatzen?

- Zure lagun mina oso triste dago oporretan ez duzelako elkar ikusiko. Asmatuko al duzu zerbait bera alaitzeko?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Zure lagun bat oso urduri dago gurasoen aurrean egin behar duzuen saioa dela eta. Zer asmatuko zenuke lasaitzeko?

.....

.....

.....


.....

.....

.....

- **Kontzientzia emozionala**

Norberaren beharrek eta emozioek norberaren nahiz ingurukoek jokabidean zer eragin duten jakitea, eta ezaguera hori ikasgela barruko nahiz kanpoko harremanen analisisan erabiltzeko gai izatea.




ZUEN ADINEAN GIHAR GUZTIAK LANTZEN DITUEN KIROLA EGITEA DA EGOKIENA, EDO, BESTELA, KIROL BAT BAINO GEHIAGO EGITEA, ZUEN GORPUTZA EGOKI HAZTEKO. HORRETARAKO, KIROL EZIN HOBEA IZATEN DA JOLASA!

Elkartasun-jolas guztietan egiten duzun bezala, jarrai iezaezu honako urrats hauei.

1. Talde handian, gogora ekarri elkartasun-jolasa zer den eta zertan datzan.
2. Irakurri jolasa eta argitu zalantzak.
3. Ekin jolasari.
4. Adieraz ezazu jolasean bizi izandako esperientzia, ahoz: sentimenduak, zailtasunak, jolasarekin gozatu al duzun, nola sentitu zaren aulki gabe geratzean edo aulki bat eskuratzetan, etab.


**ELKARTASUN-JOLASA**



Hasteko, zotz egingo dugu. Zotz eginez aukeratutako kidea biribilaren erdian jarriko da, eta beste jolaskide guztiek, bakoitza aulki batean eserita, biribila osatuko dute. Bestalde, guk ikasi beharreko gihar guztien izenak banakako txarteltxoetan idatziko ditugu. Gihar bakoitzeko hiruna txartel egingo ditugu. Txartelak nahastu eta biribilaren erdian jarriko ditugu, jolaskide bakoitzak bat hartu eta zer gihar egokitu zaion irakurriko du; informazio hori ez zaio inori eman behar, norberak bakarrik jakingo du. Gero, bere lekuan eseriko da berriro. Aulkietako guztiek beren txartelak irakurri ondoren hasiko da jolasa. Erdian dagoen jokalaria gihar biren izena esango du ozen (bizepsa eta trizepsa, adibidez) eta, orduan, txartel horiek tokatu zaizkien jolaskideek aulkiz aldatu beharko dute. Aulkiz trukatzeko une horretan, erdiko jokalaria aukera izango du aulki batean esertzeko; aulkia lortuz gero, aulkirik gabe gelditutakoa jarriko da erdian, eta berak esango ditu hurrengoan beste bi giharren izenak. Jolasa dibertigarriago egiteko, erdiko jokalaria nahi duenean «besoetako giharrak» oihuka dezake, edo «gorputz osoko giharrak», jolaskide guztiak mugiarazi eta berak aulki bat hartzeko.

- **Asertibitatea**


Estilo argia, zuzena eta errespetuzkoa erabiltzea, norik bere ikuspuntuak defendatzeko eta emozioak ikasgela barruan nahiz kanpoan adierazteko. Eta beste pertsonen behar, iritzi, interes eta emozioekiko sentikortasuna adieraztea.



## Hitz-erota

Jarduera

Arnasa ondo hartzen ikasteko ariketak eta jolasak egin dituzu. Seguru asko, primeran pasatuko zenuen eta ez zitzaizun **ez!** esan beharrik gertatuko. Baina hori ez da beti horrela izaten; zenbaitetan **ez!** esan beharra ere izaten da, eta ez da erraza.


 Erantzun honako galdera hauei, egin erantzunei buruzko gogoeta, eta, ondoren, azal diezazkiezu taldekideei zure burutazioak eta bizipenak.

**Talde-elkarrizketan zure parte-hartzea prestatzeko:**


- Har itzazu bizpahiru minutu galdera bakoitzaren gaineko gogoeta egiteko eta zer erantzungo zenukeen pentsatzeko.
- Osa itzazu erantzunak zeure bizipenetan eta sentipenetan oinarritutako adibide zehatzekin.
- Har itzazu zure burutazioak gogoratzen lagunduko dizuten idatzizko oharrak.

- Zer da zuretzat ez esatea?
- Noiz esan diozu ez, azkeneko aldiz, lagunere proposamenen bati? Nola esan duzu **ez** hori?
- Erraza gertatzen al zaizu laguneri ez esatea?
- Nola sentitzen zara ez esan behar duzunean?
- Inoiz esan al dizute ezetz lagunek? Nola sentitu zara ezezko hori jasotakoan?

## Lagun artean



Ez esatera ez ausartzeagatik, edo nola esan ez jakiteagatik, egin nahi ez duguna ere egin ohi dugu batzuetan. Hala, ez esaten ez jakiteak besteen mende jartzen gaitu; egoera horretan, erraz manipula gaitzakete eta hori kaltegarria da guretzat. Beste batzuetan, ordea, traketsak izan ohi gara norbaiti ezezkoa ematean: era desegokian adierazten dugu gure ez hori, eta bestearen sentimenduak mintzen ditugu. Horrelakoetan, ez esaten ez asmatzeak gure alboan dagoenari egiten dio kalte. Garrantzitsua da, beraz, ezetz esaten jakitea eta, gainera, era egokian esatea.

 Lagunartean gertatu ohi diren hainbat egoera dituzu hemen. Horietan ezetz esan behar zaio norbaitek egindako proposamenari.

- 1 Talde txikitik, azter ezazu egoera bakoitza eta ezetz emateko erak.
- 2 Egoera horietakoren bat antzestu talde handiaren aurrean, lagun batekin batera.
- 3 Emandako erantzunen egokitasunari buruzko zure iritzia azaldu eta arrazoitu.
  - Ezetz zuzenean adierazi du, argi eta garbi?
  - Ezetz adierazteko zehar-bideak erabili ditu, arrazoiak, aitzakiak eta bestelako azalpenak emanez?
  - Ezetz emateko era bakoitzak zer abantaila eta zer eragozpen ditu?

- Nagorek ez ditu etxeko lanak egin, eta kopiatzen uzteko esan dizu.
- Aitorrek eta zure beste hainbat lagunek etorri berria den Pablori iseka egitea proposatu dizute.
- Mikel jolasean ibili den bitartean zu jaialdia ikusteko aretora sartzeko ilaran egon zara zain. Mikel etorri eta zure aurretik sartzeko lekua eskatu dizu.
- Hamaitakoaoren zati bat emateko eskatu dizu lagun batek.



- **Prosozialtasuna**

Laguntza behar duten inguruko pertsonei (ikaskideak, irakasleak...) jarrera positiboak erakustea, eta harremanak hobetzen laguntzea.

...ETA ELKARRI LAGUNTZEN DIOGU.



BAINA ZERTAN LAGUNTZEN DIOGU ELKARRI?



11  
hamaiika

(Irudia: Txanela Globalizatua 1, 1. unitatea, 11. or.)

### 3.2. GATAZKAK KONPONTZEARI dagozkion kompetentzien lanketa Txanelan

Kompetentzia honek, "aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean beste aldeak frustrazioa esperimendatzen duen" egoeretan, elkarriketaren eta negoziazioaren bidez irtenbideak topatzen trebatu nahi ditu ikasleak. Horrek kompetentzia kognitiboak, afektiboak eta etikoak era integratuan eta egoki erabiltzea eskatzen du. Hona hemen Txanela Proiektuko materialetan eskaintzen diren adibide batzuk:


- **Emozioak erregulatzea eta kontrolatzea**

Gatazka egoeretan sortzen diren emozioak ezagutzea, eta modu kontrolatuan bideratzea eta adieraztea; hau da, gatazka sortu duen pertsonarekiko jarrera oldarkorrak eta bortitzak agertu gabe, eta emozioak erreprimitu gabe.


**Lagun artean**

Azter ezazue irakaslearekin izan ohi duzun jarrera edo portaera, eta irakasleak izan ohi duen jokabidea.


- Sarri gertatzen al da gelako eguneroko elkarbizitzan norbait irakaslea edo ikaskeiden bat amorrarazten ahalegintzea? Eta norbaitek lotsagabetuta edo petralduta erantzutea?
- Nola erantzun ohi du irakasleak halakoetan?
- Zer baliabide edo bitarteko dituzue, egoera horiei aurre egiteko?
- Horrelako egoerak kontuan hartzen dituen arategirik ba al duzue? Nola erabiltzen duzue?




jarduerak



Balkoiaren aurretik pasatzen diren herri eta kulturen irudia polita da ikuskitzunerako zerbait prestatzeko. Egoki mozorrotuta eta ipuineko hainbat azalpen baliatuz, desfile moduko baten bitartez, adieraz dezakegu historiako hainbat unetan hemen inguruan zer hem ibili diren.






**45**

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 2. unitatea, 45. or.)


▶ Taldean, hausnar ezazu aipatutako esatera edo esamolde horiei buruz; gero, aukeratu bat, eta, binaka nahiz talde txikian, sor itzazue esamolde horiek erabiltzeko egoerak eta antzeztu.

▶ Egin elkarriketa honako galdera hauei buruz:

- Zu haserretzen al zara?
- Zerk sorrarazten dizu normalean haserrea?
- Esango al zenuke nola sentitzen zaren haserre zaudenean?
- Nola adierazten duzu zure haserrealdia? (gorputz-adierazpena, keinuak, hitzak, isiltasuna...)
- Inoiz damutu izan al zara haserrealdi batean izandako jokabideaz? Jarri adibideren bat.
- Zer irtenbide da, zure ustez, egokiena haserre hori gainditzeko?



**27**



(Irudia: *Txanela Globalizatua* 4, 1. unitatea, 27. or.)

- **Pentsaera gogoetatsua**

Erantzuteko zenbait aukera kontuan hartzea eta analizatzea, gogoeta prozesu sistematikoetan oinarrituta, pertsonarteko, talde eta gizarte egoeretan sortzen diren gatazkei erantzuteko.



**ETA LAGUNARTEKO HARREMANAK? KOADRILAKOAK ETA?**

*Jarduera*

Galdera hauen inguruan hausnartu ostean, hitz egin ezazue taldean.

- Zuk zertarako nahi edo behar dituzu lagunak?
- Zer eskatzen diezu lagunei? Zer eskaintzen diezu lagunei?
- *Harreman* hitza *hartu* eta *eman* hitzek osatua da. Zuk zer egiten duzu gehiago eguneroko harremanetan? Hartu edo eman? Zergatik?
- Benetako lagunik ba al duzu? Nola dakizu?
- Ekar ezazu gogora eta pentsatu nola sentitu zaren...
  - Norbait zurekin justua izan ez den egoeraren batean.
  - Zure lagun batekin justua izan ez zaren egoeraren batean.
  - Norbaitek zerbaitetan lagundu dizunean.
  - Besteez kezkatu edo arduratu zarenean.
- Benetako laguna al zara? Nola dakizu?
- Bukatu itzazu esaldi hauek:
  - *Lagunak garrantzitsuak dira...*
  - *Lagunak behar dira...*
  - *Lagun ona izateko...*

**ETA TALDEAN LAN EGITEKO, ZER MOTATAKO HARREMANA DA EGOKIENA?**

**SEGURU ASKO, ELKARTASUNA. JOLASETAN ZEIN ONDO MOLDATZEN GAREN IKUSI BESTERIK EZ DAGO!**

Hausnar ezazu galdera hauei buruz, eta egin talde-elkarriketa:

- Zuretzat, zer da talde-lana? Gogokoa al duzu taldean lan egitea? Zergatik?
- Zer abantaila eta eragozpen ikusten dizkiozu taldean lan egiteari?
- Zer eskatzen diezu taldeko lankideei? Zer eskaintzen diezu taldeko lankideei?
- Zure ustez, zein dira talde-lana egoki betetzeko oinarritzko baldintzak?
- Zer iritzi emango zenuke orain arte egindako talde-lanei buruz?

Eskuineko orrialdeko onritxoan adierazten diren ezaugarriak eta alderdiak elkartasun-jolasei dagozkie eta, jolasetan ez ezik, elkartasunez jokatu nahi den bizitzako edozein arlotan ere aplikatu daitezke, baita talde-lanean ere.

Taldean, argitu ezazu, hitz bakoitzaren esanahia. Gero, aipa ezazue bakoitza egoki betetzeak edo ez talde-lanari ekar diezazkiokeen abantailak edo kalteak. Bukatzeko, osa itzazue proiekturako lan-taldeak eta, taldekide zareten aldetik, har ezazue alderdi horiek egoki betetzeko konpromisoa. Unitate honetan, talde-lana langai izango duzu, eta proiektua bukatzean, norberak taldekide gisa egindako lana eta izandako jokabidea eta taldearena ebaluatuko dituzue.

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 6. unitatea, 20. or.)

• **Negoiazioa**

Beste pertsona batzuekiko gatazka konpontzeko, elkarriketa bultzatzea eta konponbideak bilatzea, alde bien interesak kontuan hartuz.



...kontuan zeri gatazka da gatazka? Zeri gatazka ez da inoiz konturatu?

• **Eztabaida eta liskarra...**

- Gauza bera al dira eztabaida eta liskarra? Zeri esaten zaio eztabaida? Zeri liskarra? Zer ezberdintasun dago bataren eta bestearen artean?
- Zer esan nahi du *temati* hitzak? Eta *egoskor* hitzak? Ba al dute erlaziorik eztabaidarekin edo liskararekin?

AZALDIA...


BAI!  
ORAIN, ZER?

### 3.3. PARTE HARTZE DEMOKRATIKOARI dagozkien konpetentzien lanketa Txanelan

Parte hartze demokratikoari dagozkien konpetentziak garatzeko ezinbestekoa da eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan, parte hartze aktiboa izatea, baina, protagonismoa banatuz, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko...

- **Arauk egitea**

Giza taldeen bizikidetzaz errazten duten arauak sortzen eta betetzen parte hartze erakitzailea izatea eta, arau horiek bidegabeak direnean, aldatzeko lan egitea.



**4** JOLAS-ARAUAK ADOSTU

Adostutako arauak idatzi .....

.....

.....

(Irudia: *Txanela Globalizatua 1*, 5. unitatea, 31. or.)



Elkarlanean nola moldatzen zaren ikusteko, egin ezazu honako jolas hau. Bukatzean, hitz egin ezazue, talde handian, esperientziaz buruz nola egin duzuen, zer zailtasun sortu den, egindako lanarekin gustura zauden, lan egiteko modua egokia izan den...

**TALDE MARRAZKETA**  
Osatu lau laguneko taldeak. Talde bakoitzak arkatz bat, barragana bat, koloretako arkatzak eta omi zuria bat izango du. Elkarlanean, eta elkartasunez, handitza baten marrazkia egin behar da. Talde bakoitzak erabakitako lana nola bidieratu, eta horren arabera, ekin lanari.

Honako jarrera hauek zuzeneko lotura dute elkarlanean. Nola azalduko zenuke lotura hori, adibide zehatzak erabiliz?  
laguntza errespetua empatia erantzukizuna

ETA HALA ERE, DESADOSTASUNAK SORTUAKO DIRA. NOLA EGIN AURRERATU? NOLA HARTU ERABAKIAK?

Parte-hartze demokratikoa, erabakiak demokratikoki hartzea... Era horretako ideiak edo jokabideak oso zabaldua daude gaur egungo Europan. Baina, zer esan nahi du, zehazki?  
• Zer da, zure ustez, erabakiak demokratikoki hartzea? Azal itzazu zure erantzunak adibide zehatzak jarritz.

Guztien iritziak eta arazoak entzun ondoren, ahalki eta gehienek nahiak kontuan hartuko dituzten erabakiak hartzea.

Gehiengoak nahi duena egitea.

Batean, batzuek nahi dutena egitea, eta, hurrengoan, besteek nahi dutena.

(Irudia: *Txanela Globalizatua 6*, 2. unitatea, 5. eta 18. or.)

- **Erantzukizuna**

Arduratsu sentitzea eta talde jardueretan parte hartzea, eskola testuinguruan emandako betez.



(Irudia: *Txanela Globalizatua 1*, 1. unitatea, 18. eta 19. or.)

ESPERIMENTUAK TALDE LANEAN: ARDUREN BANAKETARAKO TXANTILLOIA	
	ESPERIENTZIA
	Arduradunak:
Materialaren arduraduna(k)	
Prozeduraren sortzailea	
Prozedura aurrera eraman (aplikatu)	
Argazkilaria	
Datu-bilketa eta kontrastea	
Garbitasuna	
Oharrak	
Bestelakoak	

(Irudia: *Lan-koaderno 13-1*, 9. or.)

- **Protagonismoa banatzea**

Pertsona guztien partaidetza erraztea bereizketarik egin gabe, inork bere burua baztertuta senti ez dezan.



Orain egin behar duzun lanean, lagun ona izateko zein bost arau bete behar diren adostu behar duzu. Baina, askotan, denen artean ados jarri eta erabakiak hartzea ez da lan erraza izaten. Betebehar horretan laguntzeko, lan kooperatiboaren teknika erabiliko duzu. Jarrai iezaeizu beheko pausoei, banan-banan.

123

Lan kooperatibo hau egiteko prozedura bat osatzen dute bi orrialde hauetako jarduerak.

1. Bakarka, pentsa itzazu eta idatzi, zure ustetan, lagun ona izateko bete behar diren bost arau.



Lagun ona izateko...

- 1. ....
- 2. ....
- 3. ....
- 4. ....
- 5. ....

2. Bil zaitezte 4-5 kideko taldeetan eta aukera ezazue taldekide bakoitzarentzat zenbaki bat (1etik 5era).



Nire zenbakia: .....

3. Taldean zaudela, irakur iezazkiezu zure bost arauak beste taldekide guztiei.
4. Irakurri berri diren arau horietatik guztietatik bost bakarrik aukeratu behar dituzue guztien artean.



Lagun ona izateko...

- 1. ....
- 2. ....
- 3. ....
- 4. ....
- 5. ....


5. Osatu beste talde batzuk, norberaren zenbakiaren arabera. Hau da, bat guztiak talde batean jarriko dira, bi guztiak beste batean...



28


**123** 6. Irakuriezazkiezu aurreko taldean erabakitako bost arauak talde berriko kideei.

7. Irakurri berri diren arau horietatik guztietatik bost bakarrik aukeratu behar dira.


 *Lagun ona izateko...*


- 1. ....
- 2. ....
- 3. ....
- 4. ....
- 5. ....

8. Elkar zaitezte berriz talde handian, eta aukera itzazue, denen artean, azken arauen arteko bost.


 *Lagun ona izateko...*

- 1. ....
- 2. ....
- 3. ....
- 4. ....
- 5. ....

 Idatz itzazu bost arau horiek txukun-txukun kartoi mehe batean eta itsats ezazu gelako pareta batean.

 Lan hori guztia burutu ondoren, egin ezazu egindakoaren gaineko hausnarketa txiki bat .

- Erraz jarri al zara zure ikaskideekin ados?
- Ondo konpondu al zara? Zergatik?
- Nolakoa izan da zure parte-hartzea? (Asko hitz egin dut. Gutxiegi hitz egin dut. Nahikoa hitz egin dut.)
- Zure ideiak azken bost arauetan islatuta ikusten al dituzu?
- Gustura gelditu al zara azken emaitzarekin? Zergatik?



29

(Irudia: *Lan Koaderno* 8, 28. eta 29. or.)



- **Elkarrizketa erabiltzea**


Elkarrizketa erabiltzeko gai izatea, bere ideiak adierazteko eta taldekide guztien partaidetza sustatzeko.

## Hitz-errota



jarduera

Emilio, mutil gaztea, Alemaniako herri batean bizi da. Amak esan dio Berlina joan behar duela amonari loreak eta izebari diru pixka bat eramatera. Sartu da trenean eta norbaitek dirua lapurtu dio. Baina ez du etsiko Emiliok lapurra harrapatu arte. Detektibetzan bera bakarrik dabilela, Berlingo kaleetan muti kotalde batekin elkartzen da. Handik aurrera denak batera ari tu kofra ikerketan. Harrapatuko ote dute lapurra denen artean? Irakurtzen hasiz gero bukatu arte utzi ezin den liburu horietako bat duzu hau. Filmeak ere egin dira nobelatxo hau oinarritzat hartuta.



Ikusi al duzu goian aipatzen den filma? Irakurri al duzu liburua?

- Ba al da liburu batean irakurri eta zineman ikusi duzun istoriorik? Zein?
- Zein gustatu zaizu gehiago? Liburuko bertsioa ala zinemakoa?



Gelakideekin elkarrizketan jarraitzeko gai aproposa duzue hau:

Istori bera, liburuan ala zineman?

- Zer abantaila eta eragozpen ikusten dizkiozu aukera bakoitzari?
- Ahal izanez gero, zer aukeratuko zenuke, filma ala liburua? Zergatik?
- Zer duzu nahiago, lehenengo filma ikusi eta gero liburua irakurri, ala liburua irakurri ondoren filma ikusi?

Taldean hitz egiten hasi aurretik, ordea, antolatu eta presta zaitetze.

- 1 Ekar itzazue gogora talde-elkarrizketa batean izan beharreko jarrerak eta zaindu beharreko arauak.
- 2 Bil zaitetze talde txikitan.
- 3 Goiko galdetegia erabil dezakezue gidoi moduan. Azter ezazue berriro eta gai beraren beste alderdiren bat jorratu nahi izanez gero, solaskide guztion artean hitzartu.
- 4 Hauta ezazue eztabaida zuzenduko duen moderatzaile bat, eta zehaztu haren zereginak, guztion artean.
- 5 Erabaki, elkarri z keta-saioa bukatutakoan, hitz egindakoaren berri laburra talde handiari nork emango dion, bozeramailea nor izango den.

HAS  
ZAITZEKETE  
SOLASEAN.

ETA EZ AHAZTU:  
NORBERAK BERE  
IKUSPUNTUA AZALTZEA DA  
HELBURUA, EZ BESTEAK  
KONBENTZITZEA.

37

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 1. unitatea, 37. or.)

### 3.4. ELKARLANARI ETA TALDE LANARI dagozkien kompetentzien lanketa Txanelan

Beste batzuekin talde lana egitea, eta elkarrekin lan eginez, helburu komunak lortzea. Horren helburua behar diren trebetasunak garatzea da, mundu konplexuan modu aktiboan integratzeko. Hona hemen Txanela proiektuko adibide batzuk:

- **Errespetua**

Lan egiteko era eta estilo desberdinak errespetatzea, lorpen komunak eskuratzeko.



▶ Elkarlanean nola moldatzen zaren ikusteko, egin ezazu honako jolas hau. Bukatzean, hitz egin ezazue, talde handian, esperientziari buruz nola egin duzuen, zer zailtasun sortu den, egindako lanarekin gustura zauden, lan egiteko modua egokia izan den...

**TALDE MARRAZKETA**  
Osatu lau laguneko taldeak. Talde bakoitzak arkatz bat, borragoma bat, koloretako arkatzak eta orn zuri bat izango du. Elkarlanean, eta elkartasunaz, hondartza baten marrakia egin behar duzue. Talde bakoitzak erabakiko du lana nola bideratu, eta horren arabera, ekin lanari.

Honako jarrera hauek zuzeneko lotura dute elkarlanarekin. Nola azalduko zenuke lotura hori, adibide zehatzak erabiliz?  
laguntza      errespetua      enpatia      erantzukizuna


ETA HALA ERE, DESADOSTASUNAK SORTUKO DIRA, NOLA EGIN Aurrera? NOLA HARTU ERABAKIAK?

Parte-hartze demokratikoa, erabakiak demokratikoki hartzea... Era horretako ideiak edo jokabideak oso zabaldua daude gaur egungo Europan. Baina, zer esan nahi dute, zehazki?  
• Zer da, zure ustez, erabakiak demokratikoki hartzea? Azal itzazu zure erantzunak adibide zehatzak jarritz.

Gehiago nahi duena egitea.  
Guztien iritzia eta arazoak entzun ondoren, ahalik eta gehien nahiak kontuan hartuko dituzten erabakiak hartzea.  
Batean, batzuek nahi dutena egitea, eta, hurrengoan, besteek nahi dutena.

- **Elkarlanean aritzeko jarrera**

Talde lanetan elkarlanean aritzeko duen etengabeko jarrera erakustea.



Konpara itzazu zure erantzunak beste taldekideek egindakoeekin, eta erantzun honako galdera hauei:

- Antzeko datuak jarri al dituzue guztiok?
- Zaila egin al zaizu ariketa? Zergatik?

ZURE BAKARKAKO LANA TALDEKIDEENAREKIN ALDERATUZ, ZALANTZAK ARGITZEKO AUKERAK ETA ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO MODUAK AURIK DITZAKEZU!

(Irudia: *Lan Koaderno*a 11-2 36. or.)



LORTZEN DUGUN  
INFORMAZIO GUZTIA  
DINOSAUROEN TXOKORA  
EKARRIKO DUGU/  
BALE?

► ZER EKAR DEZAKEZU TXOKOAN JARTZEKO?

.....

.....

.....



ETA ASKO-ASKO  
DAKIGUNEAN, MAKETA BAT  
EGIN GENEZAKE!



► BA AL DAKIZU ZER DEN **MAKETA** BAT?



7  
zazpi

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 1, 2. unitatea, 7. or.)

- **Elkartasuna**

Taldekidetza eta komunitateko kideei laguntzen jakitea.

### **Elkartasun jolasak Txanela proiektuan**

Jolasa gizakiaren garapenerako ezinbesteko bizi ekintza da. Haurren ekintza ludikoetan hainbat prozesu sozial, emozional eta kognitibo aktibatzen dira eta prozesu hauek zuzenki erlazionaturik daude haurren garapen global eta integralarekin.

TXANELA proiektuaren helburu nagusia ikaslearen garapen integrala (garapen motorea, kognitiboa, komunikatiboa, afektiboa eta gizarteratzekoa) izanik,

garrantzi berezia eman nahi izan diogu hezkuntza kooperatiboari, proiektuaren garapenean zehar irizpide hau indartzeko hainbat eta hainbat eratako proposamenak txertatu ditugularik. Proposamen hauen artean kokatzen ditugu ELKARATASUN JOLASAK.

**Maite Garaigordobil irakasleak** “JUEGO COOPERATIVO Y SOCIALIZACIÓN EN EL AULA. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación, para el desarrollo socio-afectivo en niños de 10 a 12 años” Seco olea ediciones S.L. liburuan proposatzen dituen jolasak aztertu eta gaien sekuentziari egokitzuz txertatua izan da aipatu programa.

Programa honen xedea honoko hau litzateke:

-Haurren garapen integrala eta bereziki dimentsio sozio-afektiboa potentziatzea, normaltasunez aurreratzen dutenena zein garapenean zailtasunak (ikasketetarako heldutasun falta, auto-kontzeptu urria...) eta bere kideekin harremanetan arazoak (lotsatiak, agresiboak, lagunengandik baztertuak...) dituzten ikasleena.

Taldean elkarreragin kooperatiboa bultzatuz, haurren jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatuz, beste kideekin batera lan egitea helburu bakar eta bera lortzeko eta, indibidualismoan eta konpetibitatean oinarritutako hezkuntza eredua saihestuaz.

Jolas hauen **helburuak** hauexek lirateke:

- Ikasleen arteko ezagutza handitzea, talde kide guztien auto-baieztapena estimulatuz.
- Elkarreragin sozial baikorra, adiskidetsua, eraikitzailea... handitzea, taldeko kide izatearen sentimendua estimulatzea.
- Sozializazioa hobetzeko jokabide egokien garapena handitzea, ekimena, laguntasuna, arau sozialekiko errespetua... jokabide agresiboa, lotsatia, edo apatiazkoa gutxituz.
- Talde barruan hitzen bidezko zein hitzik gabeko komunikazioa hobetzeaz gain, entzumen aktiboa ere hobetzea.

**-Taldekoen arteko laguntza harremanak hobetu, taldean kooperatzeko gaitasuna hobetzea, jokabide pro-soziala hobetzea, alegia.**

-Taldeko kideen adierazpen integrala sustatzea eta bultzatzea (sentimenduak, emozioak, pentsamenduak, desioak, beldurrak,...)

-Auto-irudia eta auto-kontzeptuaren hobekuntza erraztea.

**Jolas hauen ezaugarriak bost osagaitan bil daitezke:**

-*Parte hartzea:* Denek hartzen dute parte momentu oro eta ez dago ez eliminatorik ezta galtzailerik ere. Eliminaziorik ez dagoenez, hain abilak ez diren ikasleek aukera dute euren trebeziak hobetzeko eta esperientzia handitzeko.

-*Onarpena:* Ikasle bakoitzak jokatzen duenean esanahiaz beteriko rola izango du, onartuko duen rola eta besteek ere onartu beharko dutena. Jokalariak elementuen kontra jokatzen dute, ez kideen kontra. Kidea kooperazio lagun bezala ikusten dute eta modu honetan, huts egiteari beldurra kenduko diote eta porrotaren ideia uxatu, helburua ez delako irabaztea.

-*Kooperazioa:* Ikasleek elkarri lagunduko diote momentu oro, talde bezala jolasaren helburua betetzeko asmoz, euren esfortzua batuz eta trebezia ezberdinak konbinatuz helburu komun bat lortzeko.

-*Fikzioa*: Beti jolasten baitugu errealitateko zerbait bagina bezala “... izatera” edo “...izango bagina bezala”.

-*Dibertsioa*: Era adiskidetsuan eta eraikitzailean elkarreraginean, ikasleen dibertsioa ziurtatuta dagoelako.

### **Jolas bakoitzaren ekintzak estimulatzen duen garapenaren edukiaren arabera taldetan sailkatuak daude:**

-**Aurkezpenekoak**. Talde ezagutza

-**Hitzen bidezko eta hitzik gabeko komunikaziozkoak**. Taldeko komunikazioa estimulatu, entzumen aktiboa hobetu.

-**Konfiantzazkoak**. Besteenganako eta norberaren buruarenganako konfiantza handitu.

-**Laguntza hartu eta ematekoa**. Behaketa gaitasuna hobetu, besteen beharrezan jabetu eta baikorki erantzun.

-**Kooperaziozkoak**. Parte hartu, elkar onartu, kooperatu, kolaboratu...

-**Adierazpen dramatikoak**. Rol ezberdinen adierazpenaren bidez norberaren emozioak adierazten ikasi. Auto-adierazpen bidea.

Ziklo honetan 24 elkartasun jolas landuko ditugu bi mailetan banaturik. Unitatean zehar azalduko da proposamena eta bertan adierazten zein taldeetako jolasa den.

Gaitasun guztien garapena ziurtatu nahian, talde guztietako jolasak proposatu ditugu, dena den, jolasen programa honek eraginkortasuna izan dezan, komenigarria litzateke, gai bakoitzean aurkezten diren jolasez gain, saio bakoitzean aurreko gaietan jolastutakoak ere, behaketaren bidez talde bakoitzaren beharrezanaren arabera, bat edo beste berreskuratzea eta jolastea.

### **Jolas saio bakoitza hiru fasetan antolatuko dugu:**

-*Sarrera*: Korruan eserita jolas kooperatiboen oinarrizko ideia eta helburua birgogoratuko ditugu (adiskidetuak jolastea, elkar laguntzea, kooperatzea...) eta honen ostean, jokatu den jolasaren azalpena emango dugu.

-*Garapena*: Jolasa azaldu eta jokatzeko.

-*Berbalizazio-hausnarketa*: Borobilean eserita, esperientziari buruz hitz egingo dugu, sentimenduak, zailtasunak, sortu diren arazoak, kooperazioak dituen onurak, etab. aipatuz. Ziklo bukaeran ikasleek auto-ebaluazio eta autokritikarako gaitasuna ikaragarri garatuko dute.

Hausnarketarako galdera posible bezala hurrengoak luzatzen dizkizuegu:

-Nola sentitu zarete jolasten egon zaretenean?

-Jolasen arauak bete ahal dira?

-Denok hartu al dute parte jolasean, kolaboratuz?

-Norbaitek ikusi al du beste kideen bat baztertuta izan dela?

-Taldetik baztertuak garenean nolako sentimenduak izaten ditugu?

-Zeintzuk dira gehien gustatzen zaizkizuen jolasak? Zergatik?

-Zein jolas ateratzen dira hobeto? Zergatik izango ote da?

-Zeintzuk izan dira jolasa antolatzeko orduan izan ditugun zailtasunak?

-Zuen parte hartzearekin taldeari mesede egin diozuen sentimendua al duzue?

-Beste kideek lagundu al dute?

-Norbaitek mina hartu al du?

(Irudia: *Txanela 5 Gida*, 1. unitatea)

- **Partekatzea**

Eskolako testuinguruan nahiz hortik kanpo, taldean egiten diren jarduerak garatzea eta partekatzea.



(Irudia: *Txoko Zuria* 5, 1. unitatea)



▶ OLINPIADAK ANTOLATZEKO PAUSOAK:

1 JOKOAK AUKERATU

.....

.....

.....

2 TALDEAK SORTU

Zuk zer jokotan hartuko duzu parte?

.....

3 BEHARREZKO BALIABIDEAK ESKURATU

Inguratu behar dituzuen tresnen izenak:

SOKA	OTARREA	BALOIA
TELEBISTA	KOLTXONETA	
TXINGAK	METROA	LOKOTXAK (KOSKOLAKI)

  
30  
hogita hamar



(Irudia: Txanela Globalizatua 1, 5. unitatea, 30. or.)

- **Jardutea**

Zenbait lan taldetan eta batzordetan lankidetzan aritzea dakarten jarduerak egitea.



Gogoz ibili gara batetik bestera bideko azken mugan dago esaera: "Iristen garenean helburu batera ideia berriekin jarraitu aurrera ikasten jarraitzeko urtetik urtera." (bis)

Mikel Mendizabal

Doinua: Batetik kan korrozka, Bizkaiko txerriarenak (Motibo bat nigana), Etnesaltzailearena, Hamalau heriotzena



BENO, LAGUNA, ELKARREKIN EGITEN ARI GAREN BIDAIAREN BUKAERARA IRISTEN ARI GARA ETA LASTER OPORRAK IZANGO DITUGU!



ZER IRUDITZEN ZAIZU BI URTE HAUEI AKO ERREPASOA EGIN AHALA GURASOEI ESKAINTZEKO SAIOA ANTOLATUKO BAGENU?

GUK EGITEN DITUGUN PROPOSAMENAK GUSTUKOAK EZ BADITUZUE, ZUEK EGOKITU BESTE ERA BATERA! GROAF!



7  
zazpi

(Irudia: Txanela Globalizatua 2, 8. unitatea, 5. eta 7. or.)



### 3.5. ANIZTASUNARI dagozkion kompetentzien lanketa Txanelan

Norberarekiko desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak onartzea da kompetentzia honen helburua. Kompetentzia hori garatzeak pentsaera eta egiteko modu desberdina duten pertsonak onartzea dakar, edozein testuinguru, herrialde, arraza edo kultura delarik. Horretan bereziki saiatzen da Txanela proiektua. Unitate didaktikoetako komikiak osatzerakoan kontu handiz hautatu dira pertsonaiak, eta horren adibide dira bestak beste Mei Li (txinatarra), Ihintza (etorkina), Ibrahim (afrikarra) eta Jon (sindrome de down duena), besteak beste. Hona hemen aniztasuna lantzeko proposatzen diren jardueren artetik jasotako adibide batzuk:

- **Besteak onartzea eta balioestea**

Norbera ez bezalako ikaskideen balioa onartzea.



Mei Li

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 3, 3. unitatea, 4. or.)



(Irudia: *Txanela Globalizatua* 5, 2. unitatea, 52. or.)



Hemen behean dituzun galderak irakurri ostean, irakur ezazu komikia berriro ere, arreta berezia emanez galderetan adierazten den egoera bakoitzari. Gero, har ezazu denbora galderen gainean hausnartzeko eta idatz itzazu erantzunak. Komikian, mutil batzuk (euren artean Xabier) eta Leire futbolean jolasten ari dira. Zer iritzi diozu mutilek futbolean jolasteari? Zergatik?

- Zer iritzi diozu Leirek futbolean jolasteari? Zergatik?

- Mei Li, Aitzol eta euren gelako beste neska batzuk musika baten koreografia asmatu eta dantzatzen aritu dira jolastokian. Zer iritzi diozu neskek dantza egiteari? Zergatik?

- Zer iritzi diozu Aitzolek dantza egiteari? Zergatik?

- Zure ustez, ekintzak edo jolasak mutilentzat edo neskentzat eginda al daude? Edo gustuen arabera aukeratzen dira?


- Aitor adarra jotzen aritu zaie Xabier, Leire eta Aitzoli. Kanpotik ikusita, badirudi denekin dagoela haserre, edo beste era batera esanda, besteek egiten dutena ez zaiola ondo iruditzen. Zure ustez arazoren bat al du Aitorrek? Zein?



(Irudia: *Lan Koaderno* 8, 75. or.)

• **Onartzea**

Beste izaera, pentsaera eta portaera bat duten pertsonak onartzea



Mohammed alfonbra-saltzailea zen. Etorrin askoren ogibidea da kalez kale zerbait saltzen ibiltzea. Entzun ezazu *lñaki*, ze urrun dagoen Kamerun abestia, eta hausnartu, taldean, honako esaldi eta galdera hauen gainean.

- Egokia iruditzen al zaizu marokoar bati, marokoar izate hutsagatik, *Joxe Mari* deitzea? Edo beltz afrikar bati, beltza izateagatik, *lñaki*? Pertsona horiek ez ote dute euren izenik? Izena ez jakin arren, nola galde geniezaieke zerbait, errespetuzko hitzak erabiliz?
- Deitzen al diozu inori berea ez den beste izen batez? Gustatzen al zaio? Nola sentituko zinateke, zeure gogoaren kontra, zeurea ez den beste izen batez deituko balizute?

Nork bere izena izateko eskubidea, pertsonaren nortasunaren funtsezko alderdizat hartzen da mundu osoko estatuetako legerietan.

37

(Irudia: *Txanela Globalizatua 5*, 3. unitatea, 37. or.)



NIK BANEKIN ZER ZEN ZAINTIRATUA, NIRE FUTBOL JOKALARIRIK GUSTUKOENAK IZAN BAITZUEN ORAIN DELA GUTXI!

BAI, MEI LI, ZENBAT KTROL, HAINBAT GUSTU!

ORAIN ERE, FUTBOLA HIZPIDE. EZ AL DAGO, BADA, BESTE KIROLIK MUNDUAN!

Beha iezaeizu hemen behean duzun liburuaren aurreko eta atzeko azalei; irakurri aipamen laburra; eta saia zaitzte guztien artean ipuinean zer gertatuko den asmatzen.

NIRI EZ ZAIT FUTBOLA GUSTATZEN

ETA ZER?

Andoni España  
Mikel Valverde


ETA ZER?

• LITETX ALPIDEA

(Irudia: *Txanela Globalizatua 4*, 3. unitatea, 33. or.)

- **Gaitasun kritikoa**

Norbait desberdina delako baztertzen dutenean, kritikoa izatea eta desadostasuna adieraztea.



**jarduera**

Lan-kontuak eguneroko albiste-iturri direla jakiteko nahikoa da prentsari begiratu bat ematea: lanpostuen eskaintza, grebak, lanuzteak, lanbide berriak, lantegietako istripuak... Lanarekin zerikusia duten hainbat berri aurkitu eta lan munduan puri-purian dauden gaiak ezagutuko dituzu prentsaren bitartez.

**BAIETZ**  
LANA ETA EMAKUMEAREKIN ZERIKUSIA DUEN BERRIREN BAT AURKITU! MARTXOAREN BAN EMAKUME LANGILEAREN EGUNA DA!

**MARTXOAREN BAN**  
EMAKUME LANGILEAREN EGUNA, MAIATZAREN BATEAN LANAREN NAZIOARTEKO EGUNA... AIZU! ALFERRAREN NAZIOARTEKO EGUNIK EZ AL DAGO?

**GEURE LANARI ERE ERREPARATU BEHARKO DIOGU, EZTA? ANTZERKI GIDOIA IKASTEARI, ADIBIDEZI!**

**1** Egizu lan-koadernoko jarduera lehenbizi, eta, ondoren, taldeka, jarrai iezazieuz honako urrats hauei eta erantzun ahoz, urrats horietan oinarritutako galderei.

**2** Aukeratu informazio-iturria (egunkaria, aldizkaria, egunkari digitala...).

**3** Bilatu lanarekin zerikusia duten prentsa-testuak (albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak, iragarkiak...).

**4** Irakurri titularrak, eta gai nagusia identifikatu.

- Zein da prentsa-testu bakoitzaren gai nagusia?
- Zein dira gehien errepikatzen den gaia edo gaiak?
- Banatu gaiak bi multzotan: baikorrak edo, zure ustez, ikuspegi positiboa islatzen dutenak, eta ezkorak edo alderdi pesimista nabaritzen zaienak.
- Zer ondorio ateratzen duzu lan munduari buruz?

Antzerki-gidoiak, oro har, buruz ikasten dira, hau da, gidoiak agindu bezala adierazi behar dira, hitzez hitz. Hala ere, zenbaitetan, inprobisazioari ere lekutxo bat egin diezaikegu.

(Irudia: *Txanela Globalizatua* 6, 4. unitatea, 39. or.)

- **Tolerantzia aktiboa**

Beste pertsonak iritzi desberdinak izateko eskubidea dutela onartzea eta horien duintasuna errespetatzea.



**AZKENEAN,  
TXANTXAN ETA PAPPARROT  
LAGUNAK  
EGIN DIRA!**

**ERANTZUN IEZAIEZU GALDERA HAUEI:**

- Zein da, zure ustez, ipuin honetako narratzailea, hau da, ipuina kontatzen duena?  
Aitona  
Parkea  
Txantxan txantxangorria  
Paparrot txantxangorria
- Ipuinaren bukaeran, zer pentsatzen du parkeak bi txoriei buruz? Zer iruditzen zaizu hori?

.....

.....

**TALDEAN EZTABAIDA EZAZU GAI HAU:**

- Paparrot urrutitik eta gosez etorri da. Badira gure artean ere urrutitik eta gosez etortzen diren pertsonak. Zer jokabide eduki beharko genuke beraiekiko?
- Ezagutzen al duzu egoera horretan dagoen inor?
- Imajinatzen al duzu zer gertatuko litzaizukeen jan ahal izateko zure herria utzi eta urrutira joan beharko bazenu?
- Zer sentituko zenuke?
- Bertakoek nola tratatzea gustatuko litzaizuke?

24  
hogeita lau



(Irudia: Txanela Globalizatua 1, 7. unitatea, 24. or.)